

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Memoria hamabi atomotan

KALIFORNIAKO IBM laborategiko eta Alemaniako CFELeko ikerlariak inoiz lortutako memoria-unitate fisikorik txikiena fabrikatzea lortu dute. Gailu berriak bit bat gorde dezake burdinazko hamabi atomo besterik ez erabilita. Ondorioz, byte bat, hau da, zortzi bitez osatutako memoria unitatea, 96 atomotan gorde daiteke.

Zientzian eta teknologian miniaturizaziorantz egiten ari den lasterketan oso garrantzitsua da lorpen hori, ez baitugu ahaztu behar gaur egun ohiko memoriaren artean unitaterik txikienek milioika atomo behar dituztela byte bat gordetzeko.

Lortutakoak abiaduran eta informazioa gordetzeko ahalmelean izango du garrantzia. Datozen hamarkadetako ordenagailu eta tresna eramangarriek gaur egungo paradigmatik irautea ziurtatuko dute. Hots, gero eta txikiagoak, gero eta pisu gutxiagokoak eta gero eta azkarragoak.



WWW.TRIOTE.COM



## Karbono dioxido kopurua txikitzen duten zolak egiten ditu euskal enpresa batek



BASEPAISAJISMO.BLOGSPOT.COM

SOPUERTAKO (BIZKAIA) Hermanos Eguskiza enpresak Ecosit Klimco izeneko zolak merkaturatzen ditu. Familia-enpresa horretako ordezkari Jose Mari Eguskizaren esanetan, zola bera ez da ekologikoa, zolak duen eragina da ekologikotzat har daitekeena; hainbat zentro teknologikotan egindako ikerketen arabera, zolak 2,81 kilogramo karbono dioxido xurgatzen du metro koadroko.

Hori esatearekin batera, euskal administrazioetatik izan duten laguntza eskasa ere aipatu beharra dago, eta ez dira ikerketak aurrera eramateko diru-laguntzaz bakarrik ari, merkatueskaeraz baino. Eguskizak dioenez: “Hemen asko aldarrikatzen dugu oreka ekologikoa, baina gero zolak jartzeko garaian merkeena aukeratzen da, eta ez gara konturatzen gurea hasieran pixka bat garestiagoa izanik ere, epe ertain, eta zer esanik ez luzera, dituen onurak izugarriak direla”.



## Berez garbitzen den beira

Alemaniako Max Planck Institutuko ikerlariak ezaugarri bereziak dituen beira-geruza gardena ekoiztu dute. Beira horren propietate nagusia ura eta olio berari itsastea eragozteko gaitasuna da. Horren aplikazio praktikoak ugariak izan daitezke, etxegintzan eta medikuntzan batez ere.

<http://ttiki.com/34506> (Gaztelaniaz)

## Karbono dioxidoaren eragina arrainetan

Ume askok ikusi dute Nemo arrainaren historia kontatzen duen filma. Kasu honetan, ikerlariak aztertu dute arrain mota horren portaera karbono dioxido kontzentrazio handia duten uretan, eta emaitzak kezagarriak izan dira oso.

<http://ttiki.com/34507> (Ingelesez)

## Zizare batzuk bi aldiz gehiago bizi dira alkoholaren presentzian

Maiz entzuten ditugu alkoholaren aurkako mezuak, noizean behin ardo pixka bat ona dela esaten diguten arren. UCLA Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek behatu du zizare espezie baten bizitza luzatu egiten dela alkohol kontzentrazioa pixka bat handitzen den guneetan. Nola liteke?

<http://ttiki.com/34508> (Ingelesez)

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

[www.iametza.com](http://www.iametza.com)

T.943 37 67 16